

GORRIXEN BIDEA

Arabako iparraldean 1936tik 1937ra bitartean *de facto* eratu zen fronteak gaur egun Gorbeia Parke Naturala osatzen duen mendilerro garrantzitsua aprobetxatzen zuen, hein handi batean. Gerrako euskal fronte osoaren punturik altuenak 1.500 metroko garaiera zuen, hots, Gorbeia mendiaren tontorra. Mendiak hesi naturalak ziren bi aldean kontrolpean zeuden lurraldeen artean, Araba (matxinatuen eskuetan) eta Bizkaia (Errepublikarekiko leial). Gailur bakoitza etsaiari behatzeko posizio bihurtzen zen berehala, baita tiro egiteko gune pribilegiatu ere.

Hala ere, fronte menditsu horrek hainbat arazo zekartzan. Alde batetik, pentsatu behar dugu bi aldeetako borrokalariak 1936-1937ko neguari aurre egin behar izan ziotela muino horietan, ia beti baldintza oso eskasetan biziraunez. Bestalde, Gorbeia mendiguneko mendiek biztanle eta ezagupen gutxiko lurraldea osatzen dute, malda handiz betea eta erosotasun handirik gabea. Eta, azkenik, mendiko fronte bat izateaz gain, ekialdetik mendebaldera antolatzen zen, eta kontuan hartu beharrekoa da hori, euskal haran gehienak iparraldetik hegoaldera eta alderantziz ezartzen baitira. Horrek esan nahi du posizio ezberdinen barne-konexiorako malda handiak gainditu behar zirela, etengabe.



"Gorrixen bidea" Zizkinotik gertu

Horren haritik, Eusko Gudarosteak mendiko hainbat errepede eraikitzeari ekin zion, hainbat defentsa-linea lotzeko eta postu horiek behar bezala hornitzeko. Hala, 1937ko lehen hilabeteetan, Diziiplina Batailoia eskulana arduratu zen Bizkaiko Ubidea herria –sektore buru eta kuartela zen– Gorbeia urtegiekin lotzeko bide bat eraikitzeaz. 1937ko martxoaren 31n, frankisten erasoaldi handia hasi zenean, errepede hori artean amaitu gabe zegoen.

Gatazkaren ondoren, zortzi hamarkada igaro eta gero, bere jatorri historikoari erreferentzia eginez deitzen den "Gorrien Bidea" izeneko aproposa da mendi-ibilia egiteko. Baina azpimarratzekoa da haren paradoxa, eraiki zutenak, hots, Diziplinaren presoak, eskuindarrak baitziren hein batean eta ez, preseski, "gorrien" lagunak.

JOSU SANTAMARINA OTAOLA. ZIGOITIKO MEMORIA HISTORIKOAREN IBILBIDEAK

(2019-02-07) ERREPUBLIKAKO FRONTEA (1936-1937)